

Espainiako Auzitegi Nazionalak 5 urte eta 7 hilabeteko espetxe zigorrak eskatu ditu sei lagunentzat

IOSU ALBERDI :: 24/05/2024

Fiskaltzak erakunde kriminal bateko kide izatea eta terrorismoa gorestea leporatu die auzipetuei, 2016 eta 2020 artean egindako «ongiotorriengatik».

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak bost urte eta zazpi hilabeteko espetxe zigorrak eskatu ditu sei euskal herritarrentzat, erakunde kriminal bateko kide izateaz eta terrorismoa goresteaz akusatuta. Zehazki, Carlos Garcia Berro fiskalak Oihana Garmendia, Haimar Altuna, Oihana San Vicente, Kai Saez de Egilaz, Antton Lopez Ruiz eta Felipe San Epifaniori leporatu dizkie delitu horiek, 2016 eta 2020 artean egindako «ongiotorriengatik».

Auzitegi Nazionaleko epaile Manuel Garcia Castellonek apirilaren hasieran itxi zuen auziaren instrukzioa, eta sei kide horiek epaitzea proposatu, argudiatuta «modu sistematikoan» antolatu zituztela «presoak omentzeko ekintzak» 2016tik 2020ra bitarte, Kalera Kalera dinamika eta bestelako gizarte mugimendu batzuk baliatuta. Orain, EFE albiste agentziak argitaratu duenez, fiskalak bide bera hartu du auzitegira bidalitako idatzian, eta ahozko epaiketa irekitzeko eskatu —urtarrilean ere egin zuen eskari bera; orduan, prozedura laburtura igarotzeko autoa emateko eskatu zuenean—. Zehazki, sei lagunentzat hiru urte eta sei hilabeteko espetxe zigorrak eskatu ditu «erakunde kriminal bat osatu eta zuzentzeagatik», eta bi urte eta hilabete batekoak «biktimak umiliatzeagatik eta terrorismoa goresteagatik». Instrukzio aldian, baina, hamabost lagun inguru izan zituzten ikerketapean.

Garcia Castellonek adierazitakoaren bidetik, fiskalak sei akusatuari leporatu die Kalera Kalera dinamika zuzentzea, eta 2016 eta 2020 artean «behin eta berriz eta sistematikoki ETA talde terroristako kideentzat ongiotorriak eta bestelako omenaldi ekitaldiak antolatzea espetxetik ateratzen zirenean, Espainiara itzultzean eta heriotzen kasuan». Hala, zigorrekin batera, ekitaldi horiek egiteko erabilitako materiala atzemateko eta *KaleraInfo* eta sare sozialetako beste zenbait kontu behin betiko ixteko eskatu du fiskalak. Izatez, auzitegiak aurrez itxi zuen *KaleraInfo*, auziari hasiera ematean, «terrorismoa gorestekeko tresna bat» zela argudiatuta.

Auzi horri lotutako instrukzioak harrabotsa eragin du azken hilabeteetan. Nahiz eta Garcia Castellonek itxi egin zuen apirilean, gogoz kontra egin zuen. Izan ere, Auzitegi Nazionaleko 3. Zigor Salak behartu zuen horretara, martxoan. Aurrez, Garcia Castellonek instrukzioa luzatzeko asmoa adierazi zuen, Dignidad y Justicia elkarteak jarritako helegite bat zela medio. Sortuk eta Sare Herritarra plataformak kudeatutako Telegram kanal batzuk jarri zituen jomugan elkarte hark, eta epaileak argudiatu zuen kanal haietan «jarraibideak» zabaltzen zirela «zenbait alorretako jarduerari buruz», eta gero «Sorturen hedabideek aplikatzen zituztela» horiek.

Fiskaltzak, baina, Garcia Castellonen erabakiaren kontra egin zuen, argudiatuta epailea «jada desagindako ETA talde terroristako presoen kolektiboarekin zerikusia duen ororen

aurkako inkisizio orokor moduko batean» ari zela. Helegiteari erantzunez, 3. Zigor Salak ebatzi zuen «oinarri juridikoak» falta zirela instrukzioa luzatzeko, eta Garcia Castelloni egotzi zion urritik urtarrilera bitarte «irizpide aldaketa erradikala» egin izana.

Iturria:Fiskaltzak bost urte eta zazpi hilabeteko espetxe zigorrak eskatu ditu «ongieterrien» auzian (berria.eus)

<https://eh.lahaine.org/espainiako-auzitegi-nazionalak-5-urte>